

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Ekintza

BADAKIGU BENETAN ZER EMATEN DIGUTEN INGURUKO EKOSISTEMEK?



OKA ITSASADARRAREN GOI ESTUARIOKO EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

1	2	3

Orain, zure inguruko ekosistemak nolakoak diren jakiteko, horien zerbitzuak aztertuko ditugu. Ikastetxearen inguruan aurkitzen ditugun ekosistema nagusien zerrenda egingo dugu guztion artean, eta horietako bat aukeratuko dugu taldeka. Talde-lanaren helburua da aukeratutako ekosistemaren zerbitzuak identifikatu eta Oka itsasadarrari buruz egindako taularen antzekoa egitea. Amaitzeko, egindako lana ikaskideen aurrean azalduko dugu.



EKOSISTEMEN ZERBITZUAK

1	2	3

Erreferentziak:
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-ekosis/eu>
www.ehu.es/cdsea/web/
<http://www.ecomilenio.es/sobre-eme>

- BALIABIDEAK:**
- Ordenagailuak
 - Internet
- HELBURUAK:**
- Ekosistemen zerbitzuak ezagutzea.
- KONPETENTZIAK:**
- Hizkuntza-komunikazioa.
 - Gizartea eta herritartasuna.

GARAPENA

Gaiari heldu aurretik, galdera batzuk egingo ditugu zer pentsatzen duzuen jakiteko eta gogoeta egiteko:

- Hurbil sentitzen dituzu biodibertsitatea eta antzeko kontuak? Edo uste duzu zientzialarien eta adituen kontuak direla?
- Biodibertsitatearen galerak zure eguneroko bizitzan ondorio zuzenak dituela uste duzu?
- Azken garai honetan, egin duzu ahaleginik biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko?

Jarduera honetan, ekosistemen zerbitzuak hobeto ezagutzen saiatuko gara. Horretarako, Oka itsasadarraren goi-estuaria buruzko bideoa ikustea gomendatzen dizugu. Ikusten duzun bitartean, saiatu beheko taula osatzen (ekosistemen zerbitzuak hiru taldetan banatuta daude).

Gaztelaniaz:
https://www.youtube.com/watch?v=BKRuJmnXg4s&index=3&list=PLtN2pjj-clP_o5h2j5iit9hRUXM2ZL_7r

